

II - ADMINISTRACIÓN LOCAL DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE ÁLAVA

BERANTEVILLAKO UDALA

Behin betiko onespena ematea Dalmacio Sanchez gaztetxearen erabilera arautzen duen udal ordenantzari

Osoko Bilkuraren 2020ko abenduaren 17ko erabakiaren bidez, behin betiko onetsi zen Dalmacio Sanchez gaztetxearen ordenantza arautzailea. Beraz, argitaratu egin da, Tokiko araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2. artikulua ondo onartu eta ondu.

Erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa jarri ahal izango da Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegiko administrazioarekiko auzien salan, bi hilabeteko epean, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren Legeak 46. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik (29/1998 Legea, uztailaren 13koa).

Berantevillan, 2020ko abenduaren 22an

Alkatea

MARIO PEREA ANUNCIBAY

DALMACIO SANCHEZ GAZTETXEAREN UDAL ORDENANTZA ARAUTZAILEA

ZIOEN AZALPENA

Berantevillako Udalak, jakinik zein den udalerriko gazteen egungo egoera, eta ikusirik gazteek beraien jarduerak egin ahal izateko lokal bat behar dutela, Dalmacio Sanchez etxea gazteek erabili ahal izateko arautu eta eskuragarri jarri nahi du.

I. TITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

1. ARTIKULUA. XEDEA.

Ordenantza honen xedea, "Casa Joven – Gazte Etxea" higiezinaren erabilera arautzea da, higiezin hori Berantevillako gazteek erabili dezaten jarduera kulturalak, sozialak eta aisialdikoak egiteko.

2. ARTIKULUA. APLIKAZIO EREMUA.

Ordenantza honetako arauak Dalmacio Sanchez udal eraikinean aplikatuko dira. Higiezina, Berantevillako (Araba) Dalmacio Sanchez kaleko 12. zenbakian kokatuta dago.

3. ARTIKULUA. ERAIKINAREN ERABILERA.

Eraikina erabiltzaile gisa izena ematen duten udalerriko gazteek erabili ahal izango dute, eta bertan, bilerak, jarduera kulturalak, sozialak eta aisialdikoak gauzatu ahal izango dituzte, betiere, arduraz erabiltzen badute eraikina. Honako jarduera hauek gauzatu ahal izango dituzte bertan:

- Ikus-entzunezkoen emanaldiak.
- Ikastaroak, tailerrak.
- Bilerak.
- Jolasak.
- Ospakizunak (Inauteriak, Halloween, herriko jaiak, Gabon Zaharra, eta abar).

II. TITULUA. ERAIKINAREN ERABILERAREN ARAU ERREGULATZAILEA**4. ARTIKULUA. ARAU OROKORRAK.**

1- 14 eta 25 urte arteko gazteak egon ahal izango dira eraikinean.

Adingabeen gurasoek edo legezko tutoreek Udaleko erregistro orokorrean urtean behin sinatutako baimena aurkeztu beharko dute; baimen horren indarraldia, erregistro egunetik aurrera zenbatzen hasita urte bereko abenduaren 31ra artekoa izango da.

2- Instalakuntza, areto eta ekipamendu guztiak denek erabiltzeko izango dira.

3- Hauxe izango da ordutegia:

Astelehenetik ostegunera, lanegunetan: 17:00etatik 23:00etara.

Ostiraletan: 17:00etatik 01:00etara.

Larunbatetan, jaiegunetan eta oporraldietan: 12:00etatik 01:00etara.

Igandeetan: 12:00etatik 23:00etara.

5. ARTIKULUA. ERABILTZAILEEN BETEBEHARRAK.

Hona hemen erabiltzaileen betebeharrak:

- Lekua eta bertako altzariak zaintzea, eta gizalegez jokatzeari.
- Lokala garbi eta ordenatuta mantentzea. Eguna bukatzean, lokala, altzariak eta bertako elementuak jaso eta garbitu beharko dira, hurrengo egunean erabili ahal izateko moduan utziz.
- Ordenantza honetan zehaztutako ordutegia zehatz-mehatz bete beharko da.
- Eraikina 3. artikuluan xedatutako helburuetarako erabili beharko da.
- Bizilagunei trabarik ez sortzea ezta lasaitasuna urratzea erabilera orduetan.
- Ordutegiaren barnean, inori sarbiderik ez ukatzea arraza, sexu, erlijio, iritzi, sexu orientazio edo bestelako ezaugarri edo inguruabar pertsonal edo sozialak direla-eta.
- Akatsak edo matxurak gertatuz gero, erabiltzaileek udalari eta lokalaren arduradunari horien berri eman beharko diete.
- Eraikina eta bertako elementuak kaltetuz gero, kalte horiek erabiltzaileen erantzukizunpekoak izango dira, eta udalak horiek konpontzeko eskatu ahal izango du.
- Ordezkaritza bat izendatu beharko da, eta berak zainduko du eraikinak ondo funtzionatzen duela eta baldintzak errespetatzen direla.
- Eraikineko giltzak gordetzea eta eraikina ixtea, baimendutako ordutegian inor ez baldin badago bertan.

6. ARTIKULUA. DEBEKUAK.

Ezin dira honako hauek egin:

- Eraikina baimenduta ez dagoen helburu baterako erabiltzea.
- Eraikina legezketasunaren aurkako jardueretarako erabiltzea.
- Eraikina indarkeria, arrazismoa, xenofobia eta bestelako diskriminazio moduak sustatzen dituzten eta giza duintasunaren aurkakoak diren jardueretarako erabiltzea.
- Eraikinaren barnean erretzea.
- Eraikinaren barnean alkohola kontsumitzea.
- Bizilagunekiko elkarbizitza kaltetzen duten zarata gogaikaririk ezingo da egin.
- Eraikinaren barnean ezin izango da butanorik edo bestelako erregairik erabili.

7. ARTIKULUA. ERABILERA BAIMENA.

1. Dalmacio Sanchez gaztetxea erabili nahi duten guztiek, eskari bat aurkeztu beharko dute udalean, eta, horren bidez, konpromisoa hartuko dute ordenantza honetan ezarritako erantzukizunak eta gastu posibleak beren gain hartzeko.

Erabiltzaileak adingabeak izanez gero, 4. artikuluko 1. atalean xedatutakoa aplikatuko da.

Eskariarekin batera NANA aurkeztu beharko da, eta ondoren konpultsatu egingo da. Erabiltzailea adingabea izanez gero, gurasoen edo legezko tutoreen eta adingabearen NANak aurkeztu beharko dira.

Udalak eskari horri errola ziurtagiria atxikiko dio eta eskatzaileari udal ordenantza honen kopia bat emango dio.

Legez eraturako elkarte bat izanez gero, nahikoa izango da erabilera eskaria elkartearen presidentek egitea; bera izango da erantzukizuna bere gain hartuko duena.

Udalerrira oporraldian bakarrik etortzen diren gazteek ere eskaria aurkeztu beharko dute, eta inguruabar hori berariaz adierazi beharko dute.

2. Udalak zerrenda bat egingo du urtero eskariak aurkeztu dituztenekin, eta zerrenda hori eguneratuko du eskariak aurkezten diren heinean.

3. Erabiltzaile gisa inskribatuta egongo dira hauek:

– Adin nagusiko erabiltzaileak: 26 urte bete arte edo udalaren erregistro nagusian baja eskaria idatziz aurkezten dutenera arte.

– Erabiltzaile adingabeak: Urtean behin eskaria aurkeztu beharko dute eta eskari berriek dagokion urteko abenduaren 31ra arteko indarraldia izango dute. Erabiltzaile gisa bajaran emateko eskatu ahal izango dute abenduaren 31 aurretik, gurasoen edo legezko tutoreen sinatutako eskaria aurkeztuz.

8. ARTIKULUA. ARDURADUNA IZENDATZEA ETA BERE FUNTZIOAK.

1. Erabiltzaileek arduradun bat izendatu beharko dute, eta berak izango du erabiltzaileen betebeharrak betetzen direla kontrolatzearen eta giltza kudeatzearen eta gordetzearen ardura.

Ezingo da giltzaren kopiarik egin.

2. Adin nagusiko erabiltzaileek izendatuko dute arduraduna.

3. Gehenez ere bi urtez izan ahalko da arduraduna, eta, ondoren, berriz ere hautatu ahal izango dute.

4. Arduradun izateko epea bukatzean, giltzak udalean entregatuko ditu, eta, udalak, ondoren, arduradun berriari emango dizkio. Arduradun izateari utziko dio, edonola ere, 26 urte betetzen dituenean.

5. Arduradunak giltza beste erabiltzaile batzuei uztean, giltzen ematea eta jasotzea erregistratu beharko du, I. ERANSKIN gisa atxikitako zerrenda betez.

6. Bi hilean behin zerrenda hori udalean aurkeztuko da, albo batera utzi gabe udalak egokitzen jotzen duenean eskatu ahal izatea.

7. Erregistro liburu bat egongo da, eta bertan, lagun taldeek areto jakin bat erreserbatu ahal izango dute; areto bera ezin izango da ondoz ondoko hiru egun baino gehiagorako erreserbatu.

8. Erregistro liburuan, erreserbez eta aretoen erabilereaz gain, honakoak adieraziko dira:

a.) Arazoak eta matxurak.

b.) Erabilera onerako proposamenak eta iradokizunak.

Liburua udalarentzat eskuragarri egon beharko da, eta udalean baloratuko dute instalakuntzaren erabilera eta funtzionamendua ona izan den edo ez.

9. ARTIKULUA. UDALAK INSTALAKUNTZA BEHAR BEZALA ERABILTZEN DELA EGIAZTATZEA.

1. Udalak nahi adina egiaztaketa egin ditzake bermatzeko erabiltzaileek bete egin dituztela ordenantza honetan eta indarreko gainerako legerian ezarritako betebeharrak.

2. Matxurak egonez gero, udalak erantzukizunak eskatuko ditu, eta lokala itxi ahal izango du.

10. ARTIKULUA. HIGIEZINA GARBITZEA ETA ORDENATZEA.

1. Instalakuntza erabiltzaileek garbitu beharko dute, eta beraiek gauzatuko dituzte, beraz, ordena eta garbiketa lanak. Erabiltzaileek erosiko dute garbitzeko materiala, eta udalak ordainduko du.

2. Jarduera bat bukatzean, lekua garbi eta ordenatuta utzi beharko da.

3. Komuna instalakuntza erabiltzen den egun guztietan garbitu beharko da.

4. Gutxienez hiru hilean behin espazio komunak sakontasunez garbituko dira, hau da, martxoan, ekainean, irailean eta abenduan. Garbiketa sakona egin ondoren, aretoko arduradunak udalari idatziz horren berri eman beharko dio, eta udalak garbiketa ikuskatuko du.

Ikuskaritzaren emaitza aldekoa ez bada, udalak berriz ere garbitzeko eskatuko du eta lokala itxiko du ikuskaritza aldekoa izan arte.

Garbiketa sakona egin beharreko hurrengo hilabeteko lehenengo egunean hori egin dela jakinarazten ez bada, instalakuntza itxi egingo da.

Hori gertatzean, udalean giltza entregatu beharko da.

5. Ikuskaritza egin eta interesatuei berriz garbitzeko eskatzen bazaie garbi ez dagoelako, udalak garbiketa zerbitzua kontratatzeko aukera izango du.

Garbiketa horren gastua udalean erabiltzaile gisa izena emanda dauden guztien artean banatuko da.

III. TITULUA. ERANTZUKIZUNAK, ARAU HAUSTEAK ETA ZIGORRAK**11. ARTIKULUA. ARAU HAUSTEAK.**

Ordenantza honen aurkako ekintzak edo ez egiteak administrazio arau hausteak izango dira eta Toki araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean eta Sektore publiko araubide juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean xedatutakoekin bat eginez ezarriko dira zigorrak.

Hauek izango dira arau hausteak:

1. Arinak: Ordenantza honetan larri edo oso larri gisa agertzen ez diren guztiak.

2. Honako hauek arau hauste larriak izango dira:

– Erabilera baimenean agertzen ez diren jarduerak egitea, hau da, ordenantza honetako 3. artikuluan jasota ez daudenak egitea.

– Eraikina ez garbitzea.

– Eraikina, instalakuntzak eta eraikin barneko ondasun higiezinak kaltetzea.

– Udalaren baimenik gabe eraikineko giltzen kopiak egitea.

– Lokal barruan jendea mespretxatu edo iraintzea.

3. Honako hauek arau hauste oso larriak izango dira:

– Beste pertsona bati edo batzuei eraikina erabiltzea galaraztea, horiek eraikina erabiltzeko eskubidea izanda.

– Eraikinaren ekipamenduak, azpiegiturak, instalazioak edo osagaiak larri eta nabarmen hondatzeko ekintzak.

– Zarata eta eraikin inguruko garbitasun falta dela-eta bizilagunei enbarazu egitea.

– Udalaren baimenik gabe eraikina okupatzea.

12. ARTIKULUA. ZIGORRAK.

Aurreko artikuluan tipifikatutako arau hausteak egiten dituzten pertsona eta/edo taldeei, ireki beharreko espedientea bideratu eta gero, ondorengo zehapenak ezarriko zaizkie:

1. Arau hauste arina: 100 eurora arteko isuna.

2. Arau hauste larria: 100,01 eta 300 eurora arteko isuna.

3. Arau hauste oso larria: 300,01 eta 500 eurora arteko isuna.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Erregelamendu hau aplikatzerakoan edo bertan arautu gabeko alderdi zehatzei buruz sor daitezkeen zalantzak alkateak ebatziko ditu Kulturako Informazio Batzordearen irizpena eta egoki iritzitako txosten tekniko eta juridikoak jaso ondoren. Alkatearen erabakiek administrazio bidea amaituko dute, eta haien aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da jurisdikzio hori arautzen duen legean jasotakoaren arabera, eta nahi izanez gero, interesdunek Administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearen 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan aurreikusitako berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango dute.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau indarrean sartuko da apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, toki araubideen oinarriak arautzen dituenak, 65.2. eta 70.2. artikuluetan xedatutakoaren arabera, eta horrek aginduko du aldatzen edo indargabetzen ez den bitartean.

Ordenantza honetako gaiak arautzen dituzten maila bereko edo baxuagoko xedapen guztiak indargabetuta geratzen dira, ordenantza honetako edukien aurka badaude.

I. ERANSKINA

GAZTETXEKO GILTZAK URTEKO HILABETEAN ENTREGATU IZANAREN ERREGISTROA			
ESKATZAILEA IZEN-ABIZENAK	NAN ZENBAKIA	GILTZAK EMAN DIREN EGUNA ETA SINADURA	GILTZAK JASO DIREN EGUNA ETA SINADURA

.....(e) tikgarren orrialdea